



# BANDOA

## Nafarroako TTIPren aurkako ekimena

Etxarri Aranazko Udalak, 2016ko urtarrilaren 13an egindako osoko bilkuran, **Ipar Atlantikoko Merkataritza eta Inbertsioaren Hitzarmena (TTIP ingelesez) aplikatzearen kontrako** mozioa onatu zen.

1. Etxarri Aranatz udalerrria, udalerrri intsumisioa eta TTIPen kontrakoa dela aitortzen dugu; halaber, oinarrizko zerbitzu publikoak elkartasunerako eta gizarte birbanaketarako defendatzen dugu.

2. Estatuko Gobernuaren Herri Administrazioen Ministerioari eskatzen diogu gizarterako onuragarriak diren zerbitzuek izaera publikoa mantentzea, helburu duten ekimen guztiei laguntzea. Hortaz gain, "Ley de racionalización y sostenibilidad de la administración local" delakoa, bertan behera uztea eta honen ordez tokiz tokiko ekonomiaren garapena sustatzen duen beste lege bat sortu.

3. Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIP eta TISAren negoziazioen galarazpena eta CETA ez berrestea.

4. Ekonomia Ministerioari eskatzen diogu TTIPen negoziazioak bertan behera uztea, hurrengo helburuak lortzeko:

- Akordio honekin izandako gardentasun falta buka dadila eta informazio osoa jendaurrean jartzea.
- Ez akordio honetan, ez beste akordio batean, ISDS bezalako mekanismorik ez egotea.
- Bai zerbitzu publikoak bai jabego intelektuala hitzarmenetik kanpo geratzea.
- Lobbyei, arau eta normalizazio prozesuetan (sozial, lan, osasun, inguruneko edo beste gaietan) bai zuzenki baita zeharka ere parte hartzea debekatzea. Organismo publikoek, demokratikoak diren giza taldeekin, elkarrizketa ez diskriminatzaile egin diezaiekete.

5. Udal bezala, komertzio akordioen gaia zabaltzeko ardura hartzen

6. Nafarroako parlamentuari eskatzea, gai honi buruz erreferendum bat antolatzea, gure bizitza nola antolatu nahi dugula, gure eskubidea delako.

**Gogoratzen dizuegu hurrengo helbidean, <https://goo.gl/JQ7zJM>, interesgarriak eta elebidunak diren materialak daude. Haien artean triptikoa, komikia, bideoak eta abar.**



Etxarri Aranatz, 18 de febrero de 2016  
Alcalde: Eneka Maiz Ulaiar